AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3836

AGINDUA, 2013ko abuztuaren 20koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2009ko abenduaren 10eko, 2010eko abenduaren 17ko eta 2012ko otsailaren 10eko Aginduen bidez deitutako hautaketa-prozeduretan aukeratutako hautagaiak Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren, Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetako praktiketako funtzionario izendatzen dituena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren bidez, sailburu beraren 2009ko abenduaren 10eko, 2010eko abenduaren 17ko eta 2012ko otsailaren 10eko Aginduen bidez deitutako hautaketa-prozeduretan aukeratutako hautagaiak Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistra, Bigarren Hezkuntzako Irakasle, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasle, Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasle eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikarien Kidegoetako praktiketako funtzionario izendatu zituzten.

Hautaketa-prozedura hartan aukeratutako hautagaiek 2012/2013 ikasturtean egin zituzten praktikak.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko otsailaren 10eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran aipatutako ikasturtean praktikak gainditu ez dituzten aukeratutako hautagaiek (praktikak ebaluatzeko eskatzen den epealdi minimoa ez egiteagatik edo ez gai kalifikazioa izateagatik) bigarren aldiz praktikak egingo dituzte 2013/2014 ikasturtean, 13.4 oinarrian xedatutakoari jarraituz.

Bestetik, aipatutako hautaketa-prozeduran aukeratutako hautagaiak, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren IX. eranskinean zerrendatzen direnak, ikasturte batean praktika-aldia betetzeko legez atzerapen egoeran zeudela adierazi zen aukeratuak izan ziren bi kidegoetatik batean. Horrenbestez, 2013/2014 ikasturtean praktikak egingo dituzte aukeratuak izan ziren bigarren kidegoan.

Halaber, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2009ko abenduaren 10eko eta 2010eko abenduaren 17ko Aginduen bidez deitutako hautaketa-prozeduretan aukeratutako hautagaiak praktiketako funtzionario izendatuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko hiru erabaki judizial betez.

Horren ondorioz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Praktiketako funtzionarioak izendatzea.

1.1.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko otsailaren 10eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran aukeratutako eta 2013-2014 ikasturtean praktikak errepikatu behar dituzten hautagaiak, Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren eta Bigarren

Hezkuntzako irakasleen Kidegoetako praktiketako funtzionario izendatzea. Horiek I. eranskinean zerrendatzen dira.

1.2.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko otsailaren 10eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran aukeratutako hautagaiak, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen Kidegoetako praktiketako funtzionario izendatzea, hain zuzen ere, ikasturte akademiko batean praktika-aldia betetzeko legez atzerapen egoeran egon ondoren, aukeratuak izan ziren bi kidegoetatik batean. Horiek II. eranskinean zerrendatzen dira.

1.3.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2009ko abenduaren 10eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran aukeratutako hautagaia Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko praktiketako funtzionario izendatzea, erabaki judiziala betetzearen ondorioz. III. eranskinean zerrendatzen da.

1.4.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko abenduaren 17ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran aukeratutako hautagaiak Maisu-maistren eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoetako praktiketako funtzionario izendatzea, erabaki judiziala betetzearen ondorioz. IV. eranskinean zerrendatzen dira.

Bigarrena.– Praktiketako funtzionario gisa izendatzeak 2013ko irailaren 1az geroztik ondorio ekonomiko eta administratiboak eragiten ditu, eta horren ondorioz, praktika-aldia burutzeko, esleitutako lanpostuaren jabe izan beharko dira.

Beren lanpostuan hasten ez diren hautagaiek karrerako funtzionario gisa izendatzeko dituzten eskubide guztiak galduko dituzte.

Hirugarrena.– Agindu hau betez egindako izendapenak, hautatuak izan diren hautaketa prozeduraren deialdiak ezarritako parte hartzeko eskakizun orokorrak eta bereziak betetzearen mende egongo dira.

Praktiketako funtzionario gisa izendatzeko aukeratutako hautagaiek aurkeztutako dokumentazioa berrikusi ondoren, hala badagokio, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Agindu osagarri bat argitaratuko da. Agindu horretan, aipatutako hautaketa-prozedura horren deialdian eskatutako baldintzak egiaztatu ez dituzten pertsonak izendapenetik baztertu egingo dira.

Laugarrena.– Agindu honen bidez izendatutako funtzionarioen erregimena praktiketako funtzionarioentzat indarrean den legeriak ezarritakoa izango da.

Bosgarrena.– Agindu hau betearazi dadin beharrezko jarraibideak eman ditzan baimena ematen zaio Langileak Kudeatzeko zuzendariari.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abuztuaren 20a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

Kidegoa: Maisu-maistrak
Espezialitatea: Lehen Hezkuntza
Txanda: Librea

72442653J	Moreno González, Virginia	2012013900

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako Irakasleak
Espezialitatea: Gorputz-hezkuntza
Txanda: Librea

30677740H	García Hernando, Larraitz	2012013500

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako Irakasleak
Espezialitatea: Interbentzio soziokomunitarioa
Txanda: Desgaitasuna

11914083Z	González Cabello, M. Victoria	2012025500

II. ERANSKINA

Kidegoa: Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
Espezialitatea: Gizartearentzako zerbitzuak
Txanda: Librea

30631558C	Blázquez Martín, Francisco Javier	2012000200
30622229Y	Diego Sangari, Leyre	2012000300
30569073A	Sojo Gutiérrez, M.ª Eugenia	2012001200

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako Irakasleak
Espezialitatea: Interbentzio soziokomunitarioa
Txanda: Librea

30609000W	Sinde Carricajo, Begoña	2012002100

III. ERANSKINA

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako Irakasleak
Espezialitatea: Musika
Txanda: Librea

72463538Z	Azurmendi Jimeno, Maite	2010026210

IV. ERANSKINA

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako Irakasleak
Espezialitatea: Geografia eta Historia
Txanda: Librea

34101640T	Alcalde Olivares, Iñaki	2011020310

Kidegoa: Maisu-maistrak
Espezialitatea: Gorputz-hezkuntza
Txanda: Librea

30682449N	Ruiz Villota, Asier	2011012210